

MUTRIKU / Erakusketa, tailerrak eta ikuskizuna udal liburutegiak antolatutako liburuaren astearen barruan

MUTRIKU. DV. Atzo hasi eta hurrengo ostirala bitartean ' Liburuaren astea-2007 ' ekimena antolatu dute Udal Liburutegitik; erakusketa, tailerrak edo eta ikuskizun berezia izango duen astea hain zuzen.

Atzo hasi eta aste osoan zehar Hans Christian Andersen idazleari buruz erakusketa bitxi bat antolatu dute, besteak beste 5 panel handi jarri dituztelarik eta horrekin batera Danimarkako idazleak idatzitako 10 ipuin, Lorena Martinez Oronoz ilustratzaileak egindako lanekin batera. Ahatekume itsusia, Berunezko soldadutxoa, Sirenatxoa, Poxpolu saltzailea eta beste hainbat ipuinen egilea izan zen Hans Christian, beraz haurtzaroko garaietara iritsi edo eta ipuin horien jatorria ezagutu nahi duenak hor du aukera, izan ere 18:00etatik 20:00etara irekia izango baita erakusketa.

Marrazketa eta irakurketa

Erakusketarekin bat eginik, idazle bera oinarritzat hartuz, irudia eta ipuinak ikusi eta irakurri ondoren, bi txoko antolatuko dituzte; marrazketa txokoa 3 eta 6 urte arteko txikientzat eta irakurketa txokoa 6 eta 10 urte bitartekoentzat.

Bi tailerrok gaur eta bihar, arratsaldeko 17:00etatik 19:00ak bitartean, Zabel kultur etxean gauzatuko dira.

Asteazken zehar denetatik izango denez gero, ostegunean, 19:00etan Zabel kultur etxean, Mikelazulo kultur elkarteak prestatutako Hitzontzia, testu laborategia gauzatuko da, bertan hiru poema eta bi antzezlan labur eskainiko dituztelarik.

Oier Iruretagoiena musikaria, Idoia Beretarbideren eszenatokia, Iker Fernandez eta Oier Guillanen testuak eta Bego Hernandez, Urtzi Urkizu, Iker Fernandez eta Oier Guillan irakurtzaileak izango dira tranpalgo gainean. Esan beharrik ere ez dago emanaldia benetan erakargarria gertatzen dela.